

EUROAREN EZARRERA, KALKULUEN URTEA

Itziar Azkue Irigoyen
Finantza Ekonomia I Saila
Euskal Herriko Unibertsitatea
(E-mail) efpaziri@se.ehu.es

AURKIBIDEA

1. SARRERA.... 13; 2. EKONOMI ETA MONETA BATASUNA.... 14; 3. EUROAREN EZARRERAK DAKARTZAN ONDORIOAK.... 16; 3.1. IKUSPEGI FINANTZARIOA.... 16; 3.2. MERKATARITZA IKUSPEGIA.... 17; 3.3. IKUSPUNTU KONTABLEA:.... 19; 4. BIBLIOGRAFIA.... 22

1. Sarrera

EURO izen-deiturak Europear Batasuneko herrialdeen moneta amankomuna adierazten du, urte batzu barru moneta bakarra bihurtuko dena. Idazlan honekin geroz eta hurbilago dagoen une horri buruzko hausnarketa soil a egin nahi da.

1957 urtean Erromako Ituna sinatu eta Europako Elkartea sortu zenez geroztik, helburu garrantzitsuenetako bat merkatu bakarra lortzea izan da. Hildo horretan, eta kronologikoki aztertuz, lehen fasea 1987ko uztailean burutu zen, Europako Akta Bakarra indarrean sartu eta Elkartea, Merkatu Bakar bihurtu zenean. Bigarren atala 1991ko abenduan Maastricht-eko Europear Kontseiluak Europear Batasuneko Hitzarmena onartzean gauzatu zen: parlamentuak 1993ko azaroan bere oneritzia eman ondoren Merkatu Bakarra zeritzona Europear Batasunean eraldatu zen, Ekonomi eta Moneta Batasuna bultzatzearen konpromezu sendoa hartuz.

Moneta Batasunaren ezaugarri nagusiak, laburtuz, hauek izan daitezke:

1. Partehartzen duten herrialdeetako moneten artean gambio-tasa aldaezina finkatzea.
2. Moneta politika bakarra, moneta aginpide bakarrarenpean.
3. Merkatu finantzarioen baterakuntza.
4. Kapitalen zirkulazio librea.

2. Ekonomi eta Moneta Batasuna

Ekonomi eta Moneta Batasunari (EMB) aurre egiteko erabakia hartu ondoren hiru fase bereiztuko dira:

A- Europar Batasuneko Hitzarmenean 109j eta 109l artikuluetan jasotzen denaren arabera moneta batasunaren lehen urratsa emango da. Hasteko Banku Zentralen Europar Sistema eta Europar Banku Zentrala sortuko dira.

B- Kontseiluak partehartzaile diren herrialdeetako moneten bihurketa-tasa itzulezina finkatuko du. Zor publikoa eurotan jaulkiko da.

C- Moneta bakarraren erabilera orokorra. 2002/1/1etik 2002/7/1era bitartean bi monetak onartuko dira, euroa eta estatu bakoitzekoa.

1999ko urtarrilaren 1erako Banku Zentralen Europar Sistemak erabat egituratua egon behar du. Izan ere, 1998ko maiatzaren lehen asteburuan Europako Kontseiluak, hau da Estatu eta Gobernu buruek, erabakiko dute Maastrich-eko baldintzak zein herrialdeek bete dituzten eta ondorioz zeintzuk osatuko duten Moneta Batasuna, hasera batean.

Zein herrialdeek eutsiko diote Euroari?

Lehenik eta behin, herrialdeen borondatea ezagutu behar da. Badira Erresuma Batua, Suedia eta Danimarka "opting out" delakoan babestuko direnak. Hauek Moneta Batasunean ez partehartzeko eskubidea dute, baina gainontzeko herrialdeei eragozpenik jarri gabe.

Beste 12 herrialdeek printzipioz badirudi sartu nahi izango luketela, nahiz eta komenigarri zaien sartzearen aldekoak eta kontrakoak sakon aztertzea. Adibidez, abantailen artean aipagarrienak ondokoak dira: prezioen egonkortasuna, aldaketa

edo ganbio-tasek sortzen zituzten zalantzen desagerpena, moneta bat beste batean bihurtzeak zekartzan transakzio kostuen aurrezpena, etab.

1995eko maiatzean argitaratu zen Europako Komisioaren Liburu Berdean (Libro Verde sobre las modalidades prácticas para la introducción de la moneda única), adibide bitxia azaltzen da transakzio kostuen zenbatekoa argitzeko. Zera dio: gutako edonor adibidez 1.000 markurekin abiatuko balitz Europako Batasuna osatzen duten 15 herrialdeetara, bakoitzean moneta bihurtuz, etxera itzultzerako 500 marko gutxiago izango lituzke. Bada dirua gero! Estatistiken arabera Batasuneko Barne Produktu Gordinaren % 0,3 eta 0,4 artean, hau da urteko 20.000-25.000 milioi ecu-ri buruz ariko ginatke.

Desabantailak ere baditu, noski. Gaur egun neurtzeko zailtasun handiak daude, ordea. Aipatzen direnen artean: estatuaren moneta subirotasuna galtzea, hau da politika monetario bakarra izatea eta ondorioz ganbio-tasen aldaketa bidezko doikuntzak gehiago ezin erabiltzea; arriskua: moneta batasuna egoki kudeatuko ez denaren arriskua, monetaren egonkortasuna lortuko ez denarena, eta dolarra, zein yen-aren indarra lortuko ez duenarena. Dakitenek gakoa Inflazioa kontrolpean izatean eta Defizit Publikoa murriztean dagoela diote.

Horregatik Batasunean partehartu ahal izateko herrialdeei Maastrich-eko baldintzak betetzea eskatuko zaie. Bateratasun baldintzak betetzen diren ala ez 1997ko zenbakiek emango dute. Baldintzak hauek dira:

Ganbio tasa, Europako Moneta Sistemaren barne. *Inflazioa*: preziorik egonkorrenak dituzten hiru herrialdeen batazbekoa, gehienez 1,5 puntutan gainditu ahal izango da. *Interes-tasa* aldiz, inflazio txikiena duten hiru herrialdeetako batzabesteko tasarekin gehienez bi puntutan aldentuko da. *Defizit Publikoaren* limitea BPG % 3an ezarria dago eta azkenik *Zor Publikoa* BPG % 60ean.

Erreferentzia hauek zehatz-mehatz betetzea ez da lan erraza. Frantzia eta Alemaniak adibidez arazoak dituzte defizit-arekin eta Belgikak zorrarekin. Beraz askoren ahotan malgutasunaren ondorioen berri entzuten hasiak gara. Erabaki Ekonomikoen ginetik erabaki Politikoak daude. Europako Kontseiluaren lehen zuzendari izandako Hallstein-ek bere garaian, 1958 inguruan, esan zuen Europako Ekonomi Elkartek hiru fase izango zituela: Aduanen Batasuna (Erromako ituna), Batasun Ekonomikoa (Merkatu Bakarra) eta Batasun Politikoa, non azken honek moneta bakarra eta defentsa elkarbanatua izango dituen oinarrizko osagaiak. Beraz, politikoki hala komeni denez, Frantzia, Alemania eta Belgika lehenengo lerroan sartuko dira, esaterako.

Azkenean badirudi kanpoan gelditzeko aukera bakarrenetakoa duena Grezia izango dela. Arazo gehienak Britaniarren hizkeran PIGS herrialde izenordez deitzen direnek (Portugal, Italia, Grezia eta "Spain") izango zituztela esaten zen, baina azkenean Grezia baztertuz gainontzeko estatuak ez daude ez gaizki kokatuak.

3. Euroaren ezarrerak dakartzan ondorioak

Moneta berri baten ezarpenak arazo eta kezka ugari sortzen ditu, bai instituzio mailan eta baita herri mailan, kalean, ere. Gainera zurrumurruak azkar zabaltzen dira eta hor dago adibidez monetaren aldaketa edo bihurketa zein tasatan eta nola egingo denaren liskarra. Inbertsioen balioa eguneratzeko erabiliko al da?, edota produktuen prezioa garestitzeko...?

Azter dezagun egoera pausuz pausu eta arlo desberdinetan:

3.1. *Ikuspegi Finantzariora*

Hasera haseratik eragin gehien nabarituko duena Finantzen mundua da. Ondorioak bataz beste honela bildu daitezke:

- Aldaketa edo ganbio-tasen fluktuazioek sortutako zalantza desagertuko da.
- Kostu finantzariora txikituko da, interes-tasen beherakada.
- Produktuaren ezarpenarekin lotutako hainbat gastu ere desagertuko dira: ganbio eragiketa edota ganbioaren arrisku estaldurengatik bitartekari finantzarioei ordaintzen zaizkien transakzio-kostuak.
- Nazioarteko ordainketen kostuaren murrizketa. Izan ere Estatu Batuetan estatu batetan jaulkitako txekea beste batean kobratzeak egun bat edo gehienez bi egunetako luzapena du eta dolar erdiko kostua. Aldiz, Espainiako txekea Belgikan kobratzeko lau edo bost egun behar dira eta hamar dolar kostatzen da.
- Diruzaintza. Hau nahaste-borrastea. 1999ko urtarilaren 1 eta 2002ko urtarilaren 1 bitartean enpresariak beren eragiketak eurotan zein pezetatan egin ahal izango dituzte; ez moneta fisikoa erabiliz, baizik eta idazpenen bidez.
- Azkenik aipatu bi printzipioren erabilera:
 - * Kontratuen jarraitasunaren printzipioa.
 - * Debekurik ez, Obligaziorik ez, deritzon printzipioa.

Praktikan printzipio hauen aplikazioak sortuko dituen arazoak kontrolpean gorde ahal izateko, zehaztasun gehiago behar dira.

3.2. *Merkataritza ikuspegia*

Ez dute ez lan makala. Beren izaeraren gako *konpetitibitatea* izanik orain zer, eta merkatua zabalagoa egin zaie. Arrazoi gehiago oraindik kostuak zaindu beharra izateko.

Eta enpresek gastuen artean beste bat gehiago izango dute, egokitzapen gastuak: kontabilitatea, informatizazioa, etiketak, etab.

Izan ere, enpresek Prezioaren Politika erabakitzeke orduan kontu handia eduki beharko dute. Adibidez Iberdrolako Zuzendaria den Iñigo Oriol jaunak duela gutxi Salamankan ospatutako AECAREN Kongresu batetan zera komentatu zuen: sektore elektrikoan dagoeneko frogatu egin zutela euroaren bihurketak heuren ekar zitzaizkiekeen ondorioak aztertzeke. Zehazki elektrizitate tarifak eurotan bihurtu zituzten, hau da tarifa bakoitza partzialka bihurtu zuten eta ondorio nabarmenena prezioen beherakada izan zen. Zenbakiak erabiliz heuren prezioak % 6an murriztu ahal zitzaizkiekela erakutsi zuen. Erabilitako datuak aztertu aurretik komenigarria da lehenik eta behin bihurketaren arauak ezagutzea.

Nola egin bihurketa?

Bihurketaren abiapuntua berdinketa bat aplikatzean datza,

$$\text{ECU 1} = \text{EURO 1} = \dots?.. \text{PZTA}$$

Azalpenak:

- ECUa oraindik orain moneta desberdinek osatutako “otar” edo “zestua” da, eta kotizazio desberdinak ditu. Baina 1998ko abenduaren 3lean erabakiko da behin betirako moneta bakoitzak izango duen portzentaia. Bihurketa-tasa erabaki ondorenean, tasa hau itzulezina izango da, hau da etorkizunean finko mantenduko da, aldaketa berririk gabe.
- Berdinketa horretan 6 digitutako zenbakia erabiliko da: hiru zenbaki oso eta hiru hamarreko. Adibidez:

$$\text{ECU 1} = 165,094 \text{ pezeta.}$$

Iñigo Oriol Jaunak erabilitako datuekin, 14 pezeta/kWh ren bihurketa eginenez gero 0,0848 euro dira.

Biribilketa

Eta zer egiten dugu hamarreko, ehuneko eta milakoekin? Euroaren Erregelamendua jarraituz, zenbakia bi hamarrekotan biribildu behar da, izan ere Euro

1 = 100 zentimo (CENTS) izango baita. Eta biribilketa beheruntz ala goruntz egiteko zera hartuko da kontutan: euroak izango ez duen hirugarren hamarrekoa 4 edo txikiagoa bada, beheruntz egingo da biribilketa; eta 5 edo handiagoa bada goruntz.

Gure adibidean beraz 14 pzta 0,08 euro izango dira, 8 zentimo, eta ez 0,09 euro. Ondorioz Enpresak 0,0048 euro mesprezatu behar izan ditu, pezetatan 0,79245 pezeta; eta nahiz eta egia den pezetan zentimoak ere erabiltzen ez direla, gasolindegietan izan ezik-, gutxietsitako 0,79 pzeta hauek 14 pezetaren % 5,66 dira. Beherapen handia, dena den! Baina kontuz, kontrakoa ere gerta zitezkeen.

Hamarrekoak erabili behar diren momentu beretik batzuei aldaketa era batera eta besteei bestera komeniko zaie, hau da saltzaileari produktuen prezioan aldaketaren balio altuena ezartzea eta erosleari bajuena.

Edota saltzaileak lehen pezetarekin egiten zuen trikimailu psikologikoa burutu nahi izango du, “dena 999 pezetatan” teknika dei dezakeguna, hau da prezioa 1.000 pezetara iristen ez denez merkearen itxura eman nahi izatearena. Joku hauek harreta handiagoarekin aztertu beharko dira.

Demagun EURO 1 = 166, 222 pzta.

Beraz, 10.000 pzta = 60,160508, biribilketa erabiliz 60,16 euro.

Eta jendea erakartzeko prezioa 9.999 pzta balitz = 60,154492, biribilduz 60,15 euro.

10.000 eta 9.999 pezetan bihurketagatik aldea 0,01 euro da, pezetatan 1,66 pezeta, eta ez 1 pezeta kenketa zuzenenan egingo bagenu bezala (10.000-9.999). Izan ere 9.999 pezetatiko prezioa bihurtzeak enpresari lehen baino 0,66 pezeta gehiago galtzea dakarkio. Lehen prezioa pezeta bat jeistearekin jendea erakartzeko gai bazen, adibideko bihurketa-tasa eta diru kopuruarekin 1,66 pezeta jeitsi beharko dituela erakutsi nahi da. Bolumen handiak mugituz gero, galera esanguratsua bihur daiteke.

Bestetik “999en teknika” euroarekin erabili nahi izango balu eta eurotako prezioa zenbaki osora biribildu, hau da adibidean 60 eurotara, 0,16 euro galduko lituzke, hau da pezetatan 26,59 pezeta galdu saltzen duen unitateko. Eta 59,99 eurotan ezarriko balu 0,17 euro, hau da 28,25 pezeta produktuko.

Etiketa Politika:

1999ko urtarrilaren 1etik 2002ko urtarrilaren 1 bitartean prezio guztiek bi eratako publizitatea izatea komeniko da: pezetatan eta eurotan. Etortzeko dago Elkarteko legedi berria etiketakuntzari buruz.

3.3. *Ikuspuntu Kontablea:*

Ikuspuntu kontablea guztiz aintzakotzat hartzekoa da, enpresari guztiek beren Urteko Kontuak eurotan azaldu behar izango baitituzte. Arlo honetan hiru arazo larri aipatuko ditugu:

- Monetaren biharketa prozesua.
- Euroaren ezarrerek sortuko dituen kostuak.
- Agiri kontableen aurkezpena.

Monetaren biharketa prozesua

1. Arazoetako bat enpresek atzerri monetan dituzten kreditu eta zorren tratamendu kontablean oinarritzen da.

Kontabilitate arloan, atzerri monetan dauden kontusailak “ekitaldia ixtean, une horretan indarrean dagoen gambio-tasan baloratuko dira”. Normalean monetan aldakortasunagatik gambio diferentziak sortuko dira.

Badirudi, 1998ko abenduaren 31ean indarrean egongo den gambio-tasa eta 1999ko urtarrilaren 1ean finkatuko den biharketa-tasaren artean nabardura bat egon daitekela. Diferentzia hau noiz jaso erabaki behar da. 1999ko urtarrilaren 1erako, batetik pezeta eta euroaren arteko biharketa-tasa, eta bestetik Moneta Batasunean partehartzen duten estatuetako monetan arteko ekibalentzia finkatua egongo da. Atzerri monetan dauden kreditu eta zorrak baloratzerakoan, diferentzia horiek kontabilitatean jasotzeko tratamendua zein den finkatzeko aukera desberdinak daude, baldin eta atzerri moneta hori Batasunean partehartzen duen estatu batekoa bada:

a) 1998 ekitaldi amaieran eta 1999ko ekitaldi hasieran, gambio-tasa eta biharketa-tasaren artean sortutako gambio-diferentziak, positiboak zein negatiboak, galdu-irabazietan egotzi. Zein urtetan? 1998, 1999 edo geroagoko emaitzetan?

b) Kontutan izanik etorkizunean horrelako diferentziak berriro gertatuko ez direla, diferentzia horiek zuzenean 1999ko baliabide propio gisa (erreserbetan) jaso ahal izatea, galdu-irabazietatik pasa gabe.

Kontabilitate lanetan dihardutenen artean kontraesana sortu da. 1999ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko diren biharketa tasak, dagoeneko 1998ko Urteko Kontuak aurkezteko erabili ahal izango diren ala ez eztabaidagarria da. Euroaren ezarrera 1999ko urtarrilean finkatzen bada, 1998ko emaitza aldatzea ez da zilegi. Ezta ere 1999 ondoren periodokatzea, diferentzia horiek betirako baitira.

Gomendioa 1999ko gastu, zein sarrera kontsideratzea litzateke. Geroratze ezak, hau da ekitaldiko galera zein irabazi kontsideratzeak, ez du Zuhurtasunaren ikuspegitik balorazio araurik apurtzen, ezta Sortzapen edota Sarreraren Errealizazio printzipiorik ere.

Arrazoiketa atzerri monetaren araua aztertuz egin daiteke. Izan ere, Kontabilitate Plan Orokorrean Balorazio Arauetan 14.ak, atzerri moneta arautzen duenak, zera dio:

“Moneta talde bakoitzean gertatzen diren diferentzia negatiboak, arau orokor gisa, emaitzetan egotziko dira”, eta “talde bakoitzean gertatzen diren *gauzatu gabeko diferentzi positiboak*, arau orokor gisa, ez dira emaitzetan egotziko eta balantzean jasoko dira”. “Hala ere, gauzatu gabeko diferentzia positiboak emaitzeta-
ra eraman ahal izango dira, talde homogeneo bakoitzarentzat aurreko ekitaldietako emaitzetan edo ekitaldi berekoetan, ganbio-diferentzia negatiboak egotzi direnean, eta diferentzia negatibo horiek aurreko ekitaldietako emaitzetan ezagutarazitako diferentzia positiboekin murriztearen ondoriozko zenbatekoan.”

Diferentzia positiboan *gauzapena* edota *gauzapen eza* da arazoa eta ezta-baida sortarazten duena. Adituen esanetan bihurketa-tasa betirakoa bada eta aldaezina, ez dago arrisku berririk 1999ko urtarrilaren 1 geroztik; ondorioz ez dago zertan diferentzia positiboak periodokatu behar, zeren diferentzia horiek benetan gauzatuak daudela esan bait genezake. Are gehiago aurreko ekitaldietan ezagutarazitako diferentzia positibo guztiak ere emaitzetan egotziko genituzke.

Dena den Kontabilitate gaietan aditua den Jose Ignacio Martinez Churique Katedradunak, El Diario Vascok antolatutako “Aula de Cultura” delakoan, aipatu zuen sarrera horiek fiskalki irabazi moduan jaso behar direnez, agian 14. balorazio araua hitzez hitz aplikatzen jarrai zitekela eta galdu-irabazietatik pasa gabe utzi, mugaeguna iritxi artean. Uste dut- eta iritzia pertsonala da- hitz hauek efektu fiskala sahistearren esan zituela eta ez hainbat ikuspegi kontablea edo tratamendu kontable egokia babestearren.

2. Urteko Kontuak, idazpenak, kontusailak eurotan noiz bihurtzea komeni da? Biribilketarik sorutako diferentziak nola jaso? Teorikoki euroa eta estatu bakoitzeko moneta, moneta beraren espezio desberdinak besterik ez dira, beraz elkarren artean ordezkapena zuzena da. Hala ere, biribilketa dela eta diferentzia batzu sortuko direla ukaezina da. Diferentzia hauek materialtasun gabeak izango diren neurrian, ekitaldiko gastu edo sarrera moduan jasoko dira. Proposamena bes-telakoa izango litzateke, diferentzia horiek esanguratsuak bihurtu ezkerro. Proposamena diferentziak periodokatzea litzateke, euroaren ezarrerak irauten duen hiru urteetan, bederen.

Eurotan eta pezetatan funtzionatzeko bidea banketxeko konturen bat eurotan mantentzea izan daiteke. Kanpoarekiko eragiketak eurotan burutu eta bankua ardura dadila pezetatako bihurketak egiteaz.

3. Beste arazo garrantzitsua kontusailaren zenbateko osoa zatiki propiotan banatzen denean gertatzen da: kapitala, jesapenak,... kasuan kasu.

Bi ikuspunturen arabera egin daiteke bihurketa:

a) Kapitala edo jesapena zenbateko osoagatik eurotan bihurtu eta ondorenean akzio edo obligazioaren Balio Nominala kalkulatu.

b) Balio Nominala zuzenean eurotan bihurtu.

Bigarren kasu honetan balio nominalen batura ez da kapitala edo jesapenaren balio osoarekin bat etorriko. Adibide batekin ikusiko dugu:

Demagun 10.000 obligaziotako jesapena, non balio nominala 1.000 pzta den. Bihurketa-tasa 166,222 pzta/euroa bada, jesapenaren bihurketa osoa 60.160,51 euro ($10.000.000 / 166,222$) izango da. Aldiz obligazio bakoitzaren balio nominala bihurtuko bagenu 6,016 ($1.000 / 166,222$), biribilduz 6,02 euro lirateke. Bider 10.000 obligazio eginez gero, 60.200 euro. Eta beraz 60.200 eta 60.160,51 euroren artean 39,49 euroren aldea dago. 166,222 pezeta/euroa erabiliz gero 6.564 pezetatako aldea.

Agian pezeta hauek ez dira esanguratsuak, ez dute materialtasunik eta ekitaldiko gastutzat hartu besterik ez dugu. Zehazki 10.000.000 pezetako jesapenean % 0,065 besterik ez da.

Euroaren ezarrerek sortuko dituen kostuak

Ez dut sakonegi aztertuko, baina arazoa Euroaren egokitzapenarekin lotutako gastuen tratamenduan dago, hau da kostu administratiiboak, trebaketa gastuak, ekipamendu informatikoaren egokitzapena, etab. kontabilitatean nola jaso behar den erabaki behar da. Jose Ignacio Martinez Churriaque irakaslearen, eta beste askoren hitzetan, ekitaldiko gastuak izango dira eta ez dira aktibatuko. Euroaren bihurketa-gatik sarrera berezirik ez dira espero, baizik eta jarraitasuna. Ondorioz gastu horiek ondorengo ekitaldi desberdinetan banatzeak ez du arrazoirik.

Bestelakoa litzateke kostu guzti horiek aurrikusiko bagenitu eta baloragari diren momentu beretik Arrisku eta Gastuetarako hornidura zuzkituko bagenu. Aukera hau aztergai dago, adibidez bihurketaren poderioz aktiboko ondasunen bat bajan eman beharko bagenu, kontutan izanik eragiketa burutuko den datan kostu historikoa berreskuratu gabe egongo dela.

Agiri kontableen aurkezpena

Urteko Kontuak zein moneta unitatetan aurkeztu behar dira?

1999 eta 2002 urte bitartean nola aurkeztu? pezetatan? eurotan? hala bietera? Aplikagarri den printzipioa “Debekurik ez, Obligaziorik ez” izango da. Errealitatean ordea pezeta hala euroa erabiltzearen erabakia ez dago enpresaren esku soilik, zeren enpresarekin harremana duten hornitzaile, bezero, etab.ek, esan bezala, beren eragiketak ere eurotan nahiz pezetatan egin ahal izango dituzte. Beraz, zihurrenik enpresa handiek, kanpoarekiko harreman zabala dutenek, lehenbailehen erabili nahi izango dute euroa idazpenetan. Eta ondorioz kontuak eurotan aurkeztu nahi izango dituzte, zuzenean, berritoki idazpenak bihurtu gabe eta noski, kontabilitate bikoitza eraman beharrik izan gabe. Posiblea izango al da? Espero dezagun baietz, baina horretarako Merkataritza Kodeak 29.2 artikuluan dioena aldatu beharko du, zein idazpen kontableak pezetatan adierazi behar direla agintzen bait du. Azken ondorio honetarako orduan, legediaren aldaketa baten zain egon beharko da.

Dena den, zenbait erakunderen helburua jendea euroarekin ohitzen joatea da. Adibidez BBV-k bere bezeroei kontuak bai pezetatan eta baita eurotan komunikatuko dizkiela adierazi du.

Amaitzeko esan nahiko nuke, denbora aurrera doan heinean eta lan berriak aurkeztu eta zehastasun gehiago ezagutuko diren neurrian hausnarketa sakonago bat egitea aukera egokia izan daitekeela.

4. Bibliografia

- AULA DE CULTURA. Konferentzia “¿Cómo nos afectará el Euro? MARTINEZ CHURIAQUE, J.I. eta GUTIERREZ JUNQUERA, F. 1997ko azaroak 27.
- COMISION DE LAS COMUNIDADES EUROPEAS. “Aspectos prácticos de la introducción del euro”. Bruselas 01.10.1997.
- COMISION EUROPEA. LIBRO VERDE sobre las modalidades prácticas para la introducción de la moneda única. “Una moneda para Europa”. 1995.
- COMISION EUROPEA. EURO PAPERS. “Aspectos contables de la introducción del euro”. Dirección General XV, Mercado Interior y Servicios Financieros. 1997.
- CUADERNOS DE INFORMACION ECONOMICA, Nº 115. RESUMEN DE PRENSA, COMENTARIOS DE ACUTALIDAD. Ramon Boixareu. 1996.

- NUEVAS. "Moneta batasuna eta Euroa". M. Carmen Gallastegui Zulaika eta Ramón Tamames. EKONOMILARIEN EUSKAL ELKARGOA. 1997.
- ONTIVEROS, E. y VALERO F.J. "LA GUIA DEL EURO: Todas las respuestas sobre la moneda única". Escuela de Finanzas Aplicadas. Madrid 1997.
- PARTIDA DOBLE, 80. ZKIA. "Euro: El largo y tortuoso camino". 1997ko uztaila-abuztua.
- REGLAMENTO (CE) N° 1103/97 DEL CONSEJO de 17 de Junio de 1997 "sobre determinadas disposiciones relativas a la introducción del euro". Diario Oficial de las Comunidades Europeas.
- REVUE FRANÇAISE DE COMPTABILITE. "Passage a l'euro: propositions de la profession comptable". N° 285, 1997.
- SABI MARCANO, X. Y SALADRIGUES y SOLE, R. "Implicaciones contables sobre las empresas de la adaptación al euro". IX Congreso AECA, SALAMANCA 1997.
- SERRA SALVADOR, V. ACODI. "La gestión económico-financiera de la empresa en la Unión Monetaria Europea. Implicaciones contables del cambio en la unidad de medida". 1997
- URIARTE, Pedro Luis, Consejero Delegado de BBV. DONOSTIAKO UDA IKAS-TAROAK. EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA. LA UNION ECONOMICA Y MONETARIA. EL EURO. TRANSFORMACIONES EN EL ENTORNO ECONOMICO. "547 días para la moneda única". 1997.